

Gipuzkoako Entomologia Elkarte
Asociación Gipuzkoana de Entomología

Heteropterus

ISSN: 1576-1819

Nº 24 Zkia. - Septiembre 2010 Iraila



*Murtzia eta Almeriako
baseritarrek intsektu
“onak” erabiltzen dituzte
izurriteei aurre
egiteko
(Nekazaritza biologikoa)*

*Erleak pertsonen
aurkako minak
antzemateko
gai dira.*



En Colombia las reinas de las *Atta laevigata*, llamadas hormigas culonas, se comen. Son recolectadas durante unas nueve semanas al año, en su vuelo nupcial. La tradición exige regalarlas en las bodas por creerse afrodisíacos. Para su elaboración se descartan alas y patas.



**LA MANTIS RELIGIOSA
TIENE UN ÚNICO OÍDO
SITUADO EN EL TÓRAX.**

Argitaratzailea / Edita:
Gipuzkoako Entomologia
Elkartea - Asociación
Gipuzkoana de Entomología

**Lege-gordailua / Depósito
legal:**
SS - 1.378/99

ISSN: 1576-1819

**Erredakzio taldea /
Comité de redacción:**

Pedro Ayerbe
Mónica Menéndez
Arantza Oyarbide
Faustino Uranga
Imanol Zabalegui

**Azalaren diseinua / Diseño de
de la portada:**
Faustino Uranga

**Azaleko argazkia / Fotografía
de la portada:**
Morimus asper (Sulzer 1776)
COLEOPTERA : CERAMBYCIDAE
Imanol Zabalegui

Dohainikako argitalpena bazkide,
Gipuzkoako Eskola eta Udale-
txeentzat / Publicación gratuita
para los socios, Colegios y
Ayuntamientos de Gipuzkoa.

HETEROPTERUS
Egoitza soziala / Sede social:
OIARTZUN (Gipuzkoa)

**Gutunak helbide honetara bidali
behar dira / Toda la correspon-
dencia debe enviarse a:**



HETEROPTERUS
Apdo. 193 P.K.
20120 HERNANI (Gipuzkoa)



www.heteropterus.org
heteropterus@heteropterus.org

Nº 24 Zkia. • Septiembre 2010 Iraila

HETEROPTERUS

GIPUZKOAKO ENTOMOLOGIA ELKARTEA
ASOCIACIÓN GIPUZKOANA DE ENTOMOLOGÍA

AURKIBIDEA – INDICE

Orr. / Pág.

Editoriala / Editorial	4
5. Ekitaldi gastroentomologikoa Hernanin / 5º Evento gastroentomológico en Hernani	5-8
Pablo Bahillo de la Puebla	
Sociedad de Ciencias Naturales de Sestao/ Sestaoko Natur Zientzien Elkarte	9
Internet: Orri interesgarriak / Páginas de interés	10
Mónica Menéndez	
Gipuzkoako intsektuak / Insectos de Gipuzkoa ...	11-18
Internet: Orri interesgarriak / Páginas de interés	19
Mónica Menéndez	
Artropodoak eta posta-seiluak (II)/ Los Artrópodos y los sellos de correos (II)	20
Jorge Luis Agoiz Bustamante	
Aiako Harria Parke Naturaleko Entomofauna/ Entomofauna del Parque Natural de Aiako Harria ...	21
Erakusketak / Exposiciones	22-23
Hemeroteka	24-25
Intsektuekin jolasean / Jugando con los insectos	26
Faustino Uranga	



Oiartzungo Udalaren laguntzarekin

Con la colaboración del
Ayuntamiento de Oiartzun

www.heteropterus.org

EDITORIALA - EDITORIAL

Biodibertsitatearen Nazioarteko Urtea

Nazio Batuen Erakundeak 2010. urtea izendatu zuen Biodibertsitatearen Nazioarteko Urtea (IYB).

Gure mezua ez da, ez baikorra ezta ezkorra ere. Guk, entomologiaren inguruan mugitzen garenek, espezieak, habitatak eta ekosistemak zaintzeak duen garrantziaz jendea ohartarazten jarraitzeko eskatzen dizuegu soilik; baita, agintea dutenak horretan lan egitera bultzatzea ere.

Año Internacional de la Biodiversidad

La ONU declaró este año 2010 como el Año Internacional de la Biodiversidad (IYB).

Nuestro mensaje no es, ni optimista, ni pesimista. Simplemente, pediros que desde el entorno entomológico, hagáis lo posible para concienciar a la gente de la importancia de la conservación de las especies, los hábitats y los ecosistemas. También, en la medida de nuestras posibilidades, presionar a las autoridades para que actúen en ese sentido.

Bazkide egiteko datuak / Datos para hacerse socio

Izen Abizenak / Nombre y Apellidos.....
.....
Helbidea / Dirección.....
Herria / Localidad.....KP / CP.....

Bazkide / Socio: 25 euro urteko / anuales (2010)
Bazkide gaztea / Socio juvenil: 20 euro urteko / anuales (2010)
(Para el extranjero 5 euros más / Atzerrirako 5 euro gehiago)

“HETEROPTERUS”

Gipuzkoako Entomologia Elkarte -
Asociación Gipuzkoana de Entomología

Egoitza soziala / Sede social: OIARTZUN (Gipuzkoa)

✉ Gutunak / Correspondencia: Apdo. 193 P.K.

20120 HERNANI (Gipuzkoa)

🌐 www.heteropterus.org

heteropterus@heteropterus.org

Orri hau ez baduzu moztu nahi, fotokopia batean edo paper batean bidali ditzakezu zure datuak. Si no quieres cortar esta hoja, puedes fotocopiarla o simplemente mandarnos tus datos escritos en una hoja.

6. EKITALDI GASTROENTOMOLOGIKOA HERNANIN

6º EVENTO GASTROENTOMOLÓGICO EN HERNANI

Pablo Bahillo de la Puebla

Duela gutxi ethez aldatu naiz, horrek dakarren nahaste-borrastearekin, lan pilaketarekin, etsipenarekin eta zergatik ez esan, baita ezuste atsegin batzuekin ere. Hainbeste liburu, aldizkari eta artikululu berrantolatu behar horretan, duela urte batzuk egindako eta jada ahaztuta nituen idazlanak agertu dira karpeta batean. Lekualdaketak dakarren zurrunbiloan, idatzi horiek aspaldiko garaietara eraman naute, idatzi nituen momentura hain zuzen ere.

Recientemente he cambiado de domicilio con lo que ello conlleva de caos organizativo, trabajo añadido, desesperación y, por qué no admitirlo, también agradables sorpresas. Entre la ingente cantidad de libros, revistas, y artículos que tienes que reinstalar, vuelves a toparte con escritos que se realizaron años atrás y que habían quedado olvidados en el fondo de alguna carpeta. En medio de la vorágine del traslado esos escritos te transportan en el pasado, al momento en que fueron escritos.



Goian / Arriba: Iñigo Ugarte, Iñaki Alonso, Leticia Martínez de Murguía, Antonio San Martín, Manuel Aguirresarobe, Alberto Castro, Imanol Zabalegui.

Erdian / En medio: Juan Diego González, Pablo Bahillo, Fernando Hiribarnegarai, Fernando Salgueira, Xanti Pagola, Marta Saloña, Iñaki Recalde, Roberto Fernández de Gamboa,

Makurtuta / Agachados: Jorge Luis Agoiz, Antonio Valencia, Faustino Uranga, Arantza Oyarbide, Alex Uranga, Mónica Menéndez.



Testuinguru horretan berreskuratu nuen 2005. urtean Gipuzkoako Entomologia Elkarteak antolatuta egin genuen lehenengo ekitaldi gastroentomologikoa irakurle guztiei aurkezteko idatzitako artikulua. Momentu batez urte hartako Ugaldetxora itzuli nintzen, non oso jendetsua ez zen talde bat elkartu ginen, ia inork elkar ezagutzen ez zuen talde bat hain zuzen ere, mahai baten inguruan in-tsektuez hitz egiteko. Giroan sumatzen zen zer edo zer berezia egiten ari ginela, gaurko egunean oso eskasak baitira Peninsulako entomologia munduan horrelako bilerak: burutsuegiak, ortodoxo-egiak eta gehienetan lekuz kanpokoak eta zaharkituak.

Egun ahaztezina igaro ondoren, agurtze-ko garaian, nolabait arakatu genuen hurrengo urteetan horrelako bilera informalak egitea, nahiz eta barru-barrutik guztiok pentsatu bilera hura "beroaldi batek eraginda antolatu zela".



En ese contexto recuperé durante unos minutos la reseña escrita para dar a conocer el primer evento gastroentomológico organizado por la Asociación Guipuzcoana de Entomología en el año 2005. Durante unos instantes volví al Ugaldetxo del año 2005, cuando un grupo no demasiado numeroso nos juntamos, la mayoría sin conocernos para compartir mesa y mantel mientras charlábamos de insectos. Flotaba en el ambiente la idea tácita de que estábamos haciendo algo extraordinario, por lo poco frecuentes que eran este tipo de reuniones en el panorama entomológico peninsular actual, demasiado sesudo, demasiado ortodoxo y de facto, encorsetado en unos clichés decimonónicos las más de las veces.

Pasamos una jornada inolvidable y a la hora de despedirnos, de alguna manera nos conjuramos para repetir en los años siguientes alguna reunión informal semejante, aunque temiendo también que aquella reunión hubiera sido "flor de un día".

Ahora, volviendo la mirada al pasado, podemos congratularnos de que aquella primera reunión, sin perder su carácter extraordinario, se ha convertido en una cita normal que ha quedado integrada en las agendas de los entomólogos de la Comunidad Autónoma Vasca y áreas limítrofes.



Gaur egun eta garai hartara begiratzuz, geure buruak zoriondu ditzakegu lehenengo bilera hura, nahiz eta ohiz kanpokoak izan, Euskal Autonomia Erkidegoko eta inguruko entomologoek agendetan atxikita gelditu delako, baina orain normaltasun baten barruan.

Horrela, joan den martxoaren 27an lagun talde bat elkartu ginen berriro ere Ugaldetxo Jatetxean (Hernanitik Goizuetara doan errepideko 8. kilometroan).

Nire ustetan Gipuzkoako Entomologia Elkarteak berriro antolatu duen ekitaldi gastroentomologikoaren ezaugarri onena normaltasuna da. Atentzioa gehien eman zidana zera da, bertaratutako inork ez zuela ezer aipatu berriro ere Urumea ibai inguruan elkartzeari buruz. Ez. Bilera natural bat izan zen, gerturatutako guztiek espero zutena, lagun zaharrei eta kideei eskua emateko.

Jatetxea, aurreko urteetan bezala zoragarri zegoen, zoragarriago esango nuke nik.

Ohiturak agintzen duen bezala, pixkanaka-pixkanaka joan ginen gerturatzen, 14:00ak alderako denak han ginelarik, isildu ere egin gabe eta aperitiboak probatzen, gosea erakartzeko edo... Bazkaria beti bezala joan zen. Denbora konturatu gabe pasatu zen, horrelako



De esta manera, el pasado 27 de marzo nos volvimos a juntar un buen número de amigos en el restaurante Ugaldetxo (Km 8 de la Carretera de Hernani a Goizuela).

Para mí al menos lo mejor de este nuevo evento gastroentomológico organizado por la Asociación Gipuzkoana de Entomología es su carácter normal. Lo que más me llamó la atención es que ninguno de los asistentes hizo ninguna referencia al hecho de reunirnos un año más a orillas del río Urumea. No. Se trataba de una reunión natural, esperada por todos los asistentes para poder estrechar la mano de sus colegas y amigos.

El restaurante magnífico como todos los años anteriores, mejor que años anteriores diría yo.

Como ya es costumbre, fuimos llegando poco a poco, y alrededor de las 14:00 horas ya estábamos todos, sin callar y degustando los aperitivos para hacer boca. La comida se nos pasó como siem-





momentuak gure afizio bera duten pertso-
nekin emateagatik sentitzen dugun zorio-
naz ohartu ere egin gabe.

Bazkariaren ondoren, Xanti Pagolak
espezie inbaditzaileei buruzko hitzaldi bat
eman zigun eta gure ingurumarietara ger-
turatu diren ia intsektu inbasore guztiak
ere aurkeztu zizkigun. Jorgeren iritzia
kontuan hartuz gero, nahiko postura lizu-
nean zeuden horietako batzuk eta hori
esateaz gain, honako hipotesia ere
mahaigaineratu zuen: Iberiar Penintsulan
espezie berriak nola hedatu diren kon-
tuan hartuz gero, ez litzatekeela batere
arraroa izango Jordi Pujol hurrengo
Lehendakaria izatea. Garaian garaikoak
erakusten du. Ikusiko dugu espezie
horien dispersio moldeek zer dioten ...

Agian, hurrengo urtean Ugaldetxon
elkartzen garenean, Jorgeren hipotesiaz
eztabaidatuko dugu. Bitartean, onak eta
zoriontsuak izan.



pre. Sin darnos cuenta del tiempo pasa-
do, sin darnos cuenta de lo afortunados
que somos al poder compartir esos
momentos con nuestros colegas.

Después de la comida Xanti Pagola nos
ilustró sobre el concepto de especie inva-
sora y nos mostró la mayoría de los
insectos invasores que han llegado a
nuestros pagos. Algunos de ellos en pos-
turas abyectas según la opinión de Jorge,
que acabó la charla lanzando la hipótesis
de que, a tenor de los patrones de distri-
bución de muchas de las especies inva-
soras que habían llegado a la península
Ibérica bien podría ocurrir que el próximo
Lehendakari fuera Jordi Pujol. Tiempo al
tiempo y si los patrones de dispersión de
esas especies no mienten ...

Quizás el próximo año cuando nos volva-
mos a juntar en el Ugaldetxo podamos
discutir las hipótesis de Jorge. Mientras
tanto, sed buenos y felices.



Restaurante **UGALDET XO** Jatetxea

Ereñozu auzoa - Tel.: 943 55 02 40
20128 **HERNANI** (Gipuzkoa)

SOCIEDAD DE CIENCIAS NATURALES DE SESTAO

SESTAOKO NATUR ZIENTZIEN ELKARTEA

25 URTE BEHATZEN ETA BEGIRATZERA IRAKASTEN
25 AÑOS OBSERVANDO Y ENSEÑANDO A MIRAR



Aldizkari xume honetatik Sestaoko Natur Zientzia Elkarteko gure kideak zoriondu nahi ditugu.

25 urte daramatzate naturako hainbat atal ikertzen eta hedatzen, horien artean entomologia.

Iñaki, Pablo, ... mila esker eta zorionak, ea beste 25 bat urte ematen dituzuten entomologo berriengan afizioa sortzen, Sestaon eta Euskal Herri osoan.



SOCIEDAD DE CIENCIAS NATURALES DE SESTAO
SESTAOKO NATUR ZIENTZIEN ELKARTEA

Desde las páginas de esta humilde revista queremos felicitar a nuestros colegas de la Sociedad de Ciencias Naturales de Sestao.

25 años investigando y divulgando distintos ámbitos de la naturaleza, entre ellos la entomología.

Enhorabuena, Iñaki, Pablo, ... y a seguir en la brecha otros 25 años por lo menos, creando afición en futuras generaciones de entomólogos, en Sestao y en toda Euskalherria.




Sestaoko Natur Zientzia Elkarteko lehendakaria den Iñaki Alonso Romanek, 2010eko martxoaren 27an Ugaldetxo Jatetxean egin genuen bazkarian, liburu bana eman zigun.

El presidente de la Sociedad de Ciencias Naturales de Sestao, Iñaki Alonso Román, nos hizo entrega de un ejemplar del libro a todos los asistentes a la comida del Restaurante Ugaldetxo (27-03-2010).

INTERNET: ORRI INTERESGARRIAK / PÁGINAS DE INTERÉS

Mónica Menéndez Muñiz

<http://webs.ono.com/insecol/>




Nuevo éxito de la Asociación INSECOL

La Asociación INSECOL, Sección Entomológica de Huelva, presenta una nueva especie para la ciencia, se trata de un Coleóptero (Escarabajo): *Akis saltesiana* López-Pérez, 2010, descrita por su presidente J. José López Pérez, cuya descripción esta ya publicada en la Asociación Española de Entomología: AeE 33 (3-4), después de 7 largos años de trabajo para ver el resultado.

Esta nueva especie forma parte de la gran Familia Tenebrionidae "escarabajos de las tinieblas", Subfamilia Pimeliinae, Tribu Akidini y Género *Akis*, siendo oriundos del Asia paleártica y extendida por toda la cuenca de influencia Mediterránea, sobre todo por el norte de África. En la Península Ibérica, cuenta con 18 especies, según la "Lista recomendada de las especies ibéricas y Baleares del género *Akis* Herbst, 1799" (Julio Ferrer *et al.*, 2009) a la que habra que sunar una más, Total 19 especies.

Después de 3 largos años de búsqueda, 1 año para saber que es diferente a todas las conocidas hasta ahora y 3 interminables años para verla publicada, se ha conseguido confirmar la validez específica como nueva especie, confirmada gracias al Dr. Julio Ferrer (Conservador del Naturhistoriska riksmuseet, Stockholm), sin su generosa colaboración, se habría demorado bastante.

Habitat de *Akis saltesiana* López-Pérez, 2010 Sp. Nov.



Huelvako INSECOL elkarteak zientziarentzat berria den intsektu bat aurkeztu du. *Akis saltesiana* izena jarri diote koleoptero honi, dirudie-nez Saltes uharteko endemikoa delako, uharte hau Huelvako errekan dago, zehazki Tinto eta Odiel ibaiak osatzen duten estuarioan.

Intsektuentzako haztegi bat sortu dute, intsektuen ziklo biologikoa aztertu ondoren, bere inguruan libre uzten dituztelarik. Hobe litzateke inguruneaz hainbeste arduratzen den jende gehiago izango balitz.

Jarraitzeko moduko adibidea. Zorionak!

Desde Huelva, la Asociación INSECOL nos presenta una nueva especie para la ciencia. Se trata de un coleóptero al que llaman *Akis saltesiana*, porque parece ser endémica de la Isla de Saltes, situada en la ría de Huelva, en el estuario que forman los ríos Tinto y Odiel.

Yo destacaría la idea que han tenido de fabricar un criadero, para estudiar su ciclo biológico y posteriormente soltar los insectos al medio. ¡Ojalá que todo el mundo se preocupara tanto por el medioambiente! Esto me parece un buen ejemplo. ¡Enhorabuena, chicos!

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Aporophyla nigra

(Haworth, 1809)

Neurria: 40-45 mm.

Helduak urritik irailera agertzen dira, belaunaldi bakar batean, baso hertzetan, landatutako soroetan eta lorategietan.

Beldarrak maiatzetik irailera aurkitu daitezke eta *Rumex* (mingarratz), *Medicago* (alpapa), *Plantago* (plantain), *Genista* (ote), etab. jaten dituzte. Gatibuan letxuga eta txikoria-belarra ere jaten dute.

Gipuzkoan ugaria da.



Tamaño: 40-45 mm.

Los adultos vuelan en una sola generación entre octubre y noviembre, frecuentando bordes de bosques, campos cultivados y jardines. Las orugas aparecen de mayo a julio alimentándose de *Rumex* (acedera), *Medicago* (alfalfa), *Plantago* (llantén), *Genista* (aulaga), etc. En cautividad aceptan lechuga y diente de león.

Es abundante en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Atypha pulmonaris

(Esper, 1790)

Neurria: 26-28 mm.

Helduek belaunaldi bat dute, udaldian, uztailetik abuztura. Penintsulako iparraldean, aurki daiteke soilik, eta nahiko arraroa da.

Beldarrek *Pulmonaria* sp. bakarrik jaten dute, nahiz eta kasu bakan batzuetan *Salix*, *Quercus*... janez elikatu. Espezie honen feromonak saldu egiten dira.

Gipuzkoan urria da.



Tamaño: 26-28 mm.

Los adultos vuelan en una única generación estival entre julio y agosto. Se distribuye únicamente en el norte peninsular y es escasa. Las orugas se alimentan casi exclusivamente de *Pulmonaria* sp., aunque también de *Salix*, *Quercus*...

Se comercializan las feromonas de esta especie.

Es escaso en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA




Neurria: 26-35 mm.

Helduek bi belaunaldi izaten dituzte: maiatzetik uztaileta eta abuztutik urrira. Leku epelak dituzte gustuko, baita soroak, baso muturrak eta lorategiak ere.

Beldarrak, *Rumex* generoko belarkarak janez elikatzen dira. Lurrean ondo gordeta hibernatzen dute.

Gipuzkoan ugaria da.



Neurria: 60-80 mm.

Imagoek, hau da, tximeleta helduek, belaunaldi bakar batean egin ohi dute hegan, uztailetik urrira, erreka eta errekatxo inguruetan.

Argi artifizialera ez du erraz jotzen, oro har, errazagoa da kobazuloetan aurkitzea.

Salix, *Populus* eta *Alnus* janez elikatzen dira beldarrak eta maiatzetik ekainera ikusi ohi dira.

Gipuzkoan urria da.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Caradrina clavipalpis

(Scopoli, 1763)

Tamaño: 26-35 mm.

Los adultos vuelan en dos generaciones: mayo-julio y agosto-octubre, frecuentando lugares cálidos como campos, lindes de bosques y jardines.

Las orugas se alimentan de plantas herbáceas como las del género *Rumex*. Éstas hibernan bien escondidas en el suelo.

Es abundante en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Catocala elocata

(Esper, 1787)

Tamaño: 65-80 mm.

Los imagos vuelan siempre cerca de ríos y arroyos, en una sola generación, entre finales de julio y octubre.

Acude poco a las trampas de luz siendo más común cogerlos en cuevas.

Las orugas han sido citadas de mayo a julio alimentándose de *Salix*, *Populus* y *Alnus*.

Es escaso en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Apamea monoglypha

(Hufnagel, 1766)

Neurria: 45-55 mm.

Helduak belaunaldi bakar batean edo gehiagotan ikus daitezke hegan maiatzetik urrira, batez ere otalurretan eta soroetan. Batzuetan izurrite ere izan daitezke. Penintsulako iparraldean arrunta bada ere hegoaldean nahiko urria da. Beldarrak landare belarkarak janez elikatzen dira, batzuetan gramineoen sustraiak jaten dituzten arren.

Gipuzkoan urria da.



Tamaño: 45-55 mm.

Los adultos vuelan en una o varias generaciones de mayo a octubre, frecuentando eriales y prados. A veces causan plagas. Es una especie escasa en la mitad sur de la Península Ibérica y frecuente en la mitad norte.

Las orugas se alimentan de plantas herbáceas y raíces de gramineas.

Es escaso en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Apamea remissa

(Hübner, [1809])

Neurria: 36-42 mm.

Especie euroasiatikoa da. Maiatzean, ekainean eta uztailean aurkitu izan dira ale eskas batzuk Pirinioetan, Kantabriar mendikatean eta Araban oso nekez ikus daitezke. Nafarroan ez da inoiz aurkitu, ezta Penintsulan beste inon ere.

Beldarrak *Festuca*, *Deschampsia*, *Calamagrostis*... landare belarkarak janez elikatzen dira.

Gipuzkoan urria da.



Tamaño: 36-42 mm.

Especie euroasiática del cual se han capturado ejemplares aislados en mayo, junio y julio, siendo muy rara en los Pirineos, Cordillera Cantábrica y Álava. Ausente en Navarra y resto de la Península Ibérica.

Las orugas se alimentan de plantas herbáceas como *Festuca*, *Deschampsia*, *Calamagrostis*...

Es escaso en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA




Neurria: 30-36 mm.

Espezie euroasiatikoa da. Helduak uztailean aurkitzen dira soilik, belaunaldi bakar batean; beraz, nahiko zaila da harrapatzea. Penintsulan, Pirinioetan eta Kantabriar mendikatean aurkitzen da.

Beldarrek, belarkarak jaten dituzte, esaterako, *Milium*, *Deschampsia*, *Briza*, *Scirpus*...

Gipuzkoan urria da.



Neurria: 27-32 mm.

Baso hezeetan eta lorategietan ikus daitezke tximeleta helduak, maiatzetik irailera, hainbat belaunalditan. Besteetatik erraz bereiz daiteke, aurreko hegoen erdialdean V itxurako orban bat baitu.

Beldarrek garapen bidean diren *Silene* eta *Lychnis*-en haziak jaten dituzte eta horiek gogortzen doazen heinean hostoak jaten jarraitzen dute.

Gipuzkoan ugaria da.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Apamea scolopacina

(Esper, 1788)

Tamaño: 30-36 mm.

Especie euroasiática. Los adultos vuelan en una sola generación en julio siendo las capturas muy escasas. En la Península Ibérica se extiende únicamente por los Pirineos y la Cordillera Cantábrica.

Las larvas se alimentan de plantas herbáceas como *Milium*, *Deschampsia*, *Briza*, *Scirpus*...

Es escaso en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Hadena rivularis

(Fabricius, 1775)

Tamaño: 27-32 mm.

Los imagos vuelan de mayo a septiembre en varias generaciones frecuentando prados húmedos y jardines. Es fácil de reconocer por la mancha central del ala anterior en forma de V.

Las orugas se comen las semillas en desarrollo de *Silene* y *Lychnis*, cuando se endurecen éstas continúan con las hojas.

Es abundante en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

BUPRESTIDAE

Coraebus florentinus

(Herbst, 1801)

Neurria: 13-16 mm.

Distiratsua eta kolore aldakorrekoa da, berdea, berde urdinxka edota morexka.

Helduak maiatzetik urrira ikus daitezke. Hegan egiten dute eta bizileku duten zuhaitz hostoetan edota adarretan gelditzeko ohitura dute.

Larbak hainbat *Quercus* mota jaten dituzte: *Q. robur* (haritz), *Q. ilex* (artea), *Q. suber* (artelatza), etab.

Gipuzkoan urria da.



Tamaño: 13-16 mm.

De color variable, verde, verde azulado o violáceo, brillante.

El adulto aparece de mayo a octubre. Vuelan y acostumbran a posarse sobre las hojas y las ramas altas de los árboles donde vive.

Las larvas se desarrollan en la madera de varios *Quercus*: *Q. robur* (roble), *Q. ilex* (encina), *Q. suber* (alcornoque), etc.

Es escaso en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

BUPRESTIDAE

Eurythyrea quercus

(Herbst, 1780)

Neurria: 15-25 mm.

Distiratsua da eta kolore aldakorrekoa, berdea, berde urdinxka edo morexka.

Helduak uztailetik irailera ikus daitezke, batez ere, egun eguzkitsuetan hegan edota bizileku dituzten zuhaitz enbor gainean pausatuta.

Larbak *Quercus* sp.-etan garatzen dira, baina *Castanea* eta *Fagusetan* ere ikusi izan dituzte.

Gipuzkoan urria da.



Tamaño: 15-25 mm.

De color variable, verde, verde azulado o violáceo, brillante.

El adulto aparece de julio a septiembre. Pueden verse en días soleados volando o posados sobre los troncos de los árboles donde vive.

Las larvas se desarrollan en la madera de *Quercus* sp., pero también han sido citadas sobre *Castanea* y *Fagus*.

Es escaso en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



Tamaño: 4,5-7 mm.

Berdea edota urdinxka, iluna eta distiratsua da. Helduak apiriletik abuztura aurki daitezke. Hegan egiten dute eta bizileku dituzten zuhaitzen hostoetan eta adarretan pausatzen dira.

Larbak, hainbat *Quercus* espezie jenez elikatzen dira; hala ere, *Alnus glutinosa* eta *Fagus sylvatica* jenez ikusi dira.

Gipuzkoan urria da.



Neurria: 9-13 mm.

Distiratsua da, berdea, berde urrekara edo urdinxka eta iluna.

Helduak ekainetik uztaiera ikus daitezke. Hegan egiten dute eta bizileku dituzten zuhaitzen hostoetan eta adarretan pausatzen dira.

Larbak, batez ere, hainbat *Quercus* espezie jenez elikatzen dira; hala ere, batzuetan *Fagus* eta *Castanea*-etan ere aurkitu izan dira.

Gipuzkoan urria da.

COLEOPTERA

BUPRESTIDAE

Agrilus graminis

Kiesenwetter, 1857

Tamaño: 4,5-7 mm.

De color verde o azulado, oscuro, brillante.

Los adultos aparecen de abril a agosto. Vuelan y se posan sobre las hojas y ramas de los árboles donde viven.

Las larvas se desarrollan en diversas especies de *Quercus* sp., pero también ha sido citado en *Alnus glutinosa* y *Fagus sylvatica*.

Es escaso en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

BUPRESTIDAE

Agrilus biguttatus

(Fabricius, 1777)

Tamaño: 9-13 mm.

De color verde, verde dorado o azulado, oscuro, brillante.

Los adultos aparecen en junio y julio. Vuelan y se posan sobre las hojas y ramas de los árboles donde viven.

Las larvas se desarrollan, sobre todo, en madera de diversas especies de *Quercus*, pero también han sido citadas sobre *Fagus* y *Castanea*.

Es escaso en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CHOLEVIDAE

Speocharidius vivesi

Español y Bellés, 1980

Neurria: 3,7-4,1 mm.

Espezie hau kobazuloetan bizi da. Gorputz luzanga eta itxura segailekoa du, kolore garrantza edo garrantz iluneko. Oso antena luzeak ditu. Pronotoa kanpai itxurakoa du.

Gipuzkoan endemikoa da. Izarraitz mendiguneko bi koba zuloetan aurkitu da soilik (Ekaingo koban eta Artzabaletako koban).

Gipuzkoan oso urria da.



Tamaño: 3,7-4,1 mm.

Esta especie vive en el interior de cuevas. Cuerpo alargado y de aspecto grácil. La coloración es rojiza o rojiza oscura. Antenas muy largas. Pronoto campaniforme.

Endémica de Gipuzkoa. Solo se ha encontrado en dos cuevas del macizo de Izarraitz (cueva de Ekain y cueva de Artzabaleta).

Es muy escaso en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CHOLEVIDAE

Speocharidius galani

Español, 1970

Neurria: 2,6-3,1 mm.

Espezie hau kobazuloetan bizi da.

Gorputz eliptikoa, zabala eta luze antzekoa du. Oso antena luzeak ditu. Pronotoa zeharkakoa du. Elitroak aurretik zabalak ditu, atze aldera estutzen direlarik.

Gipuzkoan endemikoa da. Usurbilgo Guardetxe-Aurreko leizean aurkitu da soilik.

Gipuzkoan oso urria da.



Tamaño: 2,6-3,1 mm.

Esta especie vive en el interior de cuevas. Cuerpo elíptico, ancho y moderadamente alargado. Antenas muy largas. Pronoto transverso. Élitros anchos por delante, estrechándose progresivamente hacia atrás.

Endémica de Gipuzkoa. Solo se conoce de la sima Guardetxe-Aurre en Usurbil.

Es muy escaso en Gipuzkoa.



Neurria: 2,3-2,7 mm.

Espezie hau kobazuloetan bizi da. Gorputz eliptiko, ganbil, luzanga eta atze aldera estuagoa du. Antena motzak ditu. Pronotoa oinarrian ez da estutzen.

Gipuzkoan, Oñati inguruko kobetan aipatuta dagoen *aitzquirrensis* subespeziea aurki dezakegu.

Gipuzkoan oso urria da.



Tamaño: 4,4-4,8 mm.

Espezie hau kobazuloetan bizi da. Kolore gorraz iluna duen gorputz eliptikoa eta luzanga du. Oso antena luzeak ditu. Pronotoaren ertzak oso borobilduak ditu.

Ernio eta Pagoeta inguruko kobazuloetan aurki daiteke.

Gipuzkoan oso urria da.

COLEOPTERA

CHOLEVIDAE

Speonomidius crotchii

(Sharp, 1873)

Tamaño: 2,3-2,7 mm.

Esta especie vive en el interior de cuevas. Cuerpo elíptico, convexo, alargado y estrechado hacia atrás. Las antenas cortas. El pronoto no se estrecha en la base.

En Gipuzkoa podemos encontrar la subespecie *aitzquirrensis*, citada de varias cuevas de la zona de Oñati.

Es muy escaso en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CHOLEVIDAE

Speocharidius breuili

Jeannel, 1919

Tamaño: 4,4-4,8 mm.

Esta especie vive en el interior de cuevas. Cuerpo elíptico y alargado de coloración rojiza oscura. Antenas muy largas. Pronoto con los márgenes laterales muy redondeados.


Podemos encontrarla en cuevas de la zona de Ernio y Pagoeta.

Es muy escaso en Gipuzkoa.

INTERNET: ORRI INTERESGARRIAK / PÁGINAS DE INTERÉS

Mónica Menéndez Muñiz

<http://entomologia.net/>



Hemendik gure ongietorria, lehendik, "entomologia.net" aldizkarian denbora dezente lanean eman arren, duela urtebete elkarte moduan batu den talde honi.

Landutako orrialdea dute, non ordenagailuko programak, gai entomologikoak marraztuta dituzten portzelanek, intsektuak maneatzeko errezetak, udako kanpamentu bat edota Borneora espedizio zientifiko bat ikus daitezkeen. Nik, "Gure ikasleen aldrebeskeriak" atala azpimarratuko nuke, barre batzuk egiteko gune egokia baita. Bestalde, "Gure erakusketak" gunea ere nabarmentzekoa dela deritzot, bertan hainbat lekutan antolatutako erakusketa dotoreak agertzen dira eta. Intsektu biziak ere jartzen dituzte terrariumetan (mantisak, tarantulak, ...).

Beraz, orduak eta orduak emateko moduko web gunea.

Web pertenezkie a la Asociación Entomológica de Asturias. Desde aquí les damos la bienvenida, ya que existen como asociación desde hace tan solo un año, aunque ya venían trabajando en la revista "Entomologia.net" hace tiempo.

Tienen una web muy completa, desde programas de ordenador hasta porcelanas con motivos entomológicos, desde recetas para cocinar insectos hasta un campamento de verano, o una expedición científica a Borneo. Yo destacaría el apartado "Disparates de nuestros alumnos", muy bueno para reírse un rato... o llorar; y por otra parte, también destacaría el apartado "Nuestras Exposiciones", con esos insectos vivos metidos en terrarios (mantis, tarántulas...) unas exposiciones muy elegantes que han montado en diversos sitios. En fin, una web para perderse dentro.

Artropodoak eta posta-seiluak (II)

Los Artrópodos y los sellos de correos (II)

Jorge Luis Agoiz Bustamante



Gaurkoan, lau eskarabeido aurkeztuko dizkizuegu. Madagaskarreko 16 posta baloreetan agertzen direnak. Multzo baten zatia dira, bloke orri eran argitaratuta, non txakurrak, katuak, narrastiak eta intsektuak ikus daitezkeen.

Madagaskarko faunan, afrikar kontinentetik baztertua egoteak eraginda, endemismo asko daude. Aurkeztu dizkizuegun lau eskarabidoetan *Euchroa* generoko bi cetonido daude. Intsektu horien larbak deskonposatuta dagoen egur eta materia begetalean garatzen dira; helduak, aldiz, fruta eta lore gainetan ikus ditzakegu. Beste biak, *Helictopleurus* eta *Onthophagus* generoko eskarabeido koprofagoak dira. Horiek hainbat ugaztunen gorotzak janez elikatzen dira, bai larbak bai helduak.

En esta ocasión, mostramos cuatro escarabeidos, presentes en una serie de 16 valores de correos de Madagascar. Forman parte de un conjunto, editado en forma de hoja bloque, en el que se pueden ver perros, gatos, reptiles e insectos.

La fauna de Madagascar tiene un elevado número de endemismos, producto de su aislamiento del continente africano. En los cuatro escarabeidos representados se pueden ver dos cetónidos del género *Euchroa*, sus larvas se desarrollan en madera y residuos vegetales en descomposición, los adultos acuden a las flores o frutas. Además, dos escarabeidos coprófagos de los géneros *Helictopleurus* y *Onthophagus*, tanto las larvas como los adultos, se alimentan de heces de diversos mamíferos.

AIAKO HARRIA Parke Naturaleko

Entomofauna

del Parque Natural de AIAKO HARRIA

Ikerkuntza entomologikoak oso ibilbide eta tradizio laburrak dauzka Euskal Herrian. Talde taxonomiko jakin batzuetan ezik, bertako intsektuen faunari buruzko ezjakintasuna orokorra izan da betidanik eta jarraitzen du izaten gaur egun.

Gabezia horri pixkanaka aurre egiteko asmoarekin, 2000an "Aiako Harria Parke Naturaleko Entomofauna" proiektuari ekin genion, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari esker. Urtero-urteroko laginketek eta bildutako materialaren identifikazioek, hainbat adituren laguntza tarte, naturgune babestu honen espezieen zerrenda luzatu dute. Gaur arte, **1189 espezie inbentariatu ditugu**.

Aiako Harria Parke Natural eta GKLa Gipuzkoaren iparrekialdeko muturrean zabal-tzen den 6000 hektarea baino gehiagoko naturgunea da, Donostia, Errenteria, Hernani, Irun eta Oiartzungo udalerrien lurretan. Pirinioen muturretako bat izanik eta tontorrik altuenek 800 m inguruko altitueda baino ez dutela jakinik, fauna eurosiberiarraren Iberiar Penintsularanzko "sarrera-ateetako" bat dela aitortu behar da. Eta horixe berresten dute orain arte Pirinioen hegoaldera inoiz ez aurkitutako espezie ugarien aipuek.

Ezaguera faunistikoaren aurrerapenez gain, proiektu honi esker **best espezie berri zientziarako** aurkitu dira orain arte: *Mayetia* (s. str.) *amicorum* Hernando, 2005 (Coleoptera: Staphylinidae), *Sciasminettia europaea* Carles-Tolrá, 2006 (Diptera: Lauxaniidae), *Hypsitylus arberlaitz* Pagola-Carte, 2006 (Hemiptera: Heteroptera: Miridae), *Megaselia lobatafurcae* Disney, 2009 eta *Megaselia parspallida* Disney, 2009 (Diptera: Phoridae).

La investigación entomológica en el País Vasco apenas goza de historia y tradición. A excepción de algunos grupos taxonómicos concretos, el desconocimiento sobre nuestra fauna de insectos ha sido y aún es generalizado.

Con el objetivo principal de ir paliando poco a poco esta carencia, en 2000 dimos inicio al proyecto "Entomofauna del Parque Natural de Aiako Harria", gracias a la ayuda de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Año tras año, los muestreos e identificaciones del material recolectado, con la colaboración de los correspondientes especialistas, han ido alargando la lista de especies registradas en este espacio natural protegido. **Llevamos inventariadas 1189 especies**.

El Parque Natural y LIC de Aiako Harria tiene una superficie de algo más de 6000 hectáreas y está situado en el extremo nororiental de Gipuzkoa, en terrenos pertenecientes a los municipios de Donostia, Errenteria, Hernani, Irun y Oiartzun. Siendo uno de los extremos de la cadena pirenaica y con altitudes máximas que apenas superan 800 m, supone una de las "puertas de entrada" de fauna eurosiberiana en la Península Ibérica, como lo confirman las numerosas citas de especies nunca antes registradas al sur de los Pirineos.

Además del avance en el conocimiento faunístico, gracias al proyecto se han descubierto hasta el momento **cinco especies nuevas para la ciencia**: *Mayetia* (s. str.) *amicorum* Hernando, 2005 (Coleoptera: Staphylinidae), *Sciasminettia europaea* Carles-Tolrá, 2006 (Diptera: Lauxaniidae), *Hypsitylus arberlaitz* Pagola-Carte, 2006 (Hemiptera: Heteroptera: Miridae), *Megaselia lobatafurcae* Disney, 2009 y *Megaselia parspallida* Disney, 2009 (Diptera: Phoridae).

INTSEKTUAK ETA BIODIBERTSITATEA

LOS INSECTOS Y LA BIODIVERSIDAD

Gipuzkoako Entomologia Elkartearen
erakusketa ibiltaria

Exposición itinerante de la
Asociación Gipuzkoana de Entomología



"Intsektuak eta Biodibertsitatea" izeneko Gipuzkoako Entomologia Elkartearen erakusketa ibiltaria Valderejo Parke Naturaleko (Araba) Parketxean izan da ikusgai 2010eko ekainaren 15etik uztailearen 15era.

La exposición itinerante de la Asociación Gipuzkoana de Entomología "Los Insectos y la Biodiversidad" ha estado expuesta al público en la Casa del Parque del Parque Natural de Valderejo (Álava) del 15 de junio al 25 de julio de 2010.

VALDEREJO



INTSEKTUAK ETA BIODIBERTSITATEA

LOS INSECTOS Y LA BIODIVERSIDAD

Gipuzkoako Entomologia Elkartearen
erakusketa ibiltaria

Exposición itinerante de la
Asociación Gipuzkoana de Entomología



GORBEIA

"Intsektuak eta Biodibertsitatea" izeneko Gipuzkoako Entomologia Elkartearen erakusketa ibiltaria Gorbeiaiko Parke Naturaleko (Araba) Parketxean izan da ikusgai 2010eko uztailaren 26tik irailaren 5era.

La exposición itinerante de la Asociación Gipuzkoana de Entomología "Los Insectos y la Biodiversidad" ha estado expuesta al público en la Casa del Parque del Parque Natural de Gorbeia (Álava) del 26 de julio al 5 de septiembre de 2010.



HEMEROTEKA

Alertan sobre una patología canina por la procesionaria del pino

IRUN

✪ **M.J.A.** Un veterinario irunés ha alertado de que en una semana se le han presentado cinco casos con la misma patología, relacionada con la procesionaria del pino. Los perros atendidos mostraban una lengua muy inflamada, en casos con riesgo de necrosis, todo ello derivado del contacto con los pederivados de la orugas. Advierte que se tenga cuidado con las zonas de pino. Los perros tratados habían estado en Jaizkibel.

EL DIARIO VASCO 12/03/2010

Una araña venenosa pica a un nudista candiense de 22 años en el pene

Un turista canadiense que disfrutaba de sus vacaciones en Nueva Zelanda se encuentra ahora recuperándose en el hospital después de haber sufrido la picadura en el pene de una araña venenosa. El joven de 22 años que practicaba nudismo decidió descansar tumbado al sol después de darse un saludable baño. Cuando se despertó, se encontró con sus partes íntimas hinchadas y rojas, además de con una fuerte taquicardia. Según cuenta el *New Zealand Medical Journal*, el chico fue picado por un *katipo*, un tipo extraño de araña que vive en las playas neozelandesas, cuyo veneno puede ser fatal. De momento, el pronóstico del joven es bueno pero nada le quitará de permanecer ingresado en el hospital durante 16 días.

Noticias de Gipuzkoa 17/05/2010

Las hormigas enfermas y agonizantes mueren voluntariamente en soledad

Las hormigas enfermas y agonizantes abandonan a sus congéneres para morir en soledad, según un estudio presentado ayer por biólogos de la Universidad alemana de Regensburg, al sur del país. Los entomólogos germanos han legado a la conclusión de que la sacrificada actitud de las hormigas enfermas tiene como fin evitar contagiar el mal que padecen a sus compañeras y que optan por morir en soledad para preservar su comunidad. Los expertos de Regensburg subrayan que comportamientos similares se han

observado en algunos mamíferos, como es el caso de elefantes y leones, aunque hasta ahora no se han realizado grandes estudios para confirmar que una actitud así es sistemática. En el caso de las hormigas, los entomólogos estudiaron sistemáticamente una colonia y comprobaron que las trabajadoras de la especie abandonan el nido cuando se sienten enfermas para morir sin compañía. Los científicos germanos, que publicarán sus conclusiones en la revista especializada *Current Biology*, subrayaron que el auto aislamiento de las hormigas en caso de enfermedad es voluntario y que no es forzado por sus congéneres sanas.

Noticias de Gipuzkoa 30/01/2010

HEMEROTEKA

Noticias de Gipuzkoa 19/01/2010


Las higueras matan a los hijos de las avispas que no les ayudan a polinizar

Las higueras *castigan* a las avispas con la muerte de su prole si éstas no les ayudan a polinizar, según se desprende del último estudio realizado por investigadores del *Smithsonian Tropical Research Institute* norteamericano. Los higos y las avispas que polinizan las plantas representan uno de los ejemplos favoritos de los biólogos de beneficio mutuo entre dos especies diferentes: a cambio del servicio de polinización proporcionada por la avispa, la higuera le proporciona alojamiento y comida a la avispa para el desarrollo con los higos. Sin embargo, las avispas no siempre polinizan las higueras y entonces éstas castigan a las *tramposas* dejando caer la fruta no polinizada, causando la muerte dentro de la prole de la avispa. "Las relaciones necesitan dar y recibir: Queremos saber lo que obliga a mantener este acuerdo de más de 80 millones de años entre las higueras y las avispas", afirmó el investigador Charlotte Jander. Algunas especies de avispas transportan de forma pasiva el polen porque éste está pegado a su cuerpo sin que se den cuenta. Mientras, otras lo hacen de forma consciente al transportar *bolsas especiales*.

Grandes hormigas invaden muros, columnas y techos del Congreso colombiano

Centenares de grandes hormigas negras y marrones invaden la fachada, columnas y ventanas del Congreso colombiano en el centro de Bogotá, en una inusual exposición del artista Rafael Gómezbarros, quien explicó que con ello busca una "reflexión" sobre lo que la gente vive y ve a diario. Con la invasión de las hormigas, que "representan la inmigración, la globalización y el desplazamiento, pretendo forzar una reflexión sobre lo que vivimos y vemos a diario y, además, para sensibilizar sobre nuestros monumentos", explicó Gómezbarros. Son en total 1.300 insectos pegados al exterior de la sede del Legislativo. Las figuras fueron hechas por Gómezbarros con una resina especial y fibra de vidrio y el montaje fue bautizado por el artista como *Casatomada*. Pero no se trata de una acción política, subrayó el autor, pues "el montaje no va más allá de una expresión artística y en algún caso más que política es social, pues busca llamar la atención sobre los monumentos". La singular exposición permanecerá colgada en la sede del Legislativo colombiano hasta el 26 de marzo y dos días después será instalada en el monumento a Los Héroes en un cruce de importantes avenidas del sector norte de la capital colombiana. *Casatomada* saldrá de las fronteras colombianas e irá de gira a Argentina, México, Chile, Estados Unidos, Canadá, España y Alemania.

Noticias de Gipuzkoa 18/02/2010



kutxa



INTSEKTUEKIN JOLASEAN JUGANDO CON INSECTOS


Faustino Uranga



A




B



Enbrioptero hauek jolasteko gogoa dute eta honako jokoak jarri nahi dizkigute:
 A irudian intsektu bat bakarra mugituz eragiketa zuzena lortu behar da. Beraiek aitortu digutenez, bi erantzun posible daude. Aurki itzazu.
 B irudian, berriz, bi intsektu mugitu behar dituzu eragiketa zuzena izateko, kasu honetan erantzun zuzen bat dago soilik.

A estos embiópteros les ha dado por jugar y nos quieren plantear las siguientes cuestiones:
 En la figura A hacer que la igualdad sea cierta moviendo sólo un insecto. Nos han confesado ellos que existen dos posibles soluciones, averígalas.
 En cambio en la figura B hay que mover dos insectos para que la igualdad sea correcta, en este caso sólo hay una solución.

Aurreko zenbakiko erantzuna / Respuesta al número anterior:



Científicos de la Universidad de Queen Mary, de Londres, han averiguado que las abejas ven el mundo casi cinco veces más rápido que las personas.



Nosotros no podemos seguir con la mirada un insecto que vuela rápido pero ellos sí pueden seguirse unos a otros.



Australiako inurri erraldoiak, edo bulldog inurriak, Myrmecia gulosak, 30 mm-ko luzera izan dezake.

Nephila clavipes armiarna amerikarraren emeek 23 eta 40 mm bitarte neurtzen dute. Egiten dituzten armiarna sareek metro bat eta bi metro bitarteko zabalera izan dezakete, eta egiten duten zeta, kevlar-ra eta tentsio altuko altzairua baino gogorragoa, arinagoa eta elastikoagoa da.



